

AUGUSTIN, ZUBIKARAI BEDIALAUNETA'ri OMENALDIA

Apirilak 18'an Bizkaiko Aldundiak Augustin Zubikarai'ri Omenaldia eskeini eutsen. Ango jai giroa alde batera itzirik, E. Erkiaga Jaunak egin eban itzaldia batzen dau KARMEL-ek, baita gero Augustin Zubikarai'k emon eban erantzun laburra be.

KARMEL'ek pozik dakartzue omenaldiko itzaldi au, danok dakizuen lez, Augustin dogulako aspalditik KARMEL-eko idazlari leiala.

Lanegiñak, obrak gizonaren umekak direan giñoan, gizona bere lanen seme ei da.


Kezka larrien artean, gure gizon honek kezka txikerra baiña jarraikoa erabili ohi dau. Bai ba; sarritan bere izena dan lakoa agertzen ez deitsoelako. Arean bere, Augustin ez dau bere izena, Augustin baiño.

Nor da Augustin? Zein dogu Zubikarai Bedialauneta hau-xe?

Orain 71 urte, zemendiaren 3-an Ondarroan jaio zan, eta hantxe hazi be, uri hori zeharo euskalduna zanean. Orain baiño txiroago zanean.

Ugaritasun eta ondasun-aldiak kultureari lagun on izaten jakozala esan ohi da. Gure gertari honetan, ohiturei ta batez be, hizkereari dagokionez, horrelan ez dalakoan gagoz.

Hori, oster, Euskalerrri osoan jazo da. Ondasunak eta auke-



rak ugaritu egin dira, etorliarrak gehitu eta gehitu. Berbeta jatorraren egoerea, barriz, makaldu.

Mediku ebakuntzariak kirurgi-eginetan arduratsu, arreta zoliz jardun behar dau. Noraezean izan ezik, ez dau ezer zulatu ez ebagi behar; ez dau landuzko zati arrotzik, protesisi dalakorik ezarri behar. Abagune bakotxean, egokien danaz baliatzea dago-kio.

Augustiñek kirurgi bitartez barik etxeko medikuaren antzera jardun dau. Euskerearen osasuna jagon guran, bizi danari bizirik eutsi guran, biziaren atalak eta zatiak be, arduratsu begiraturuz, zainduz.

Euskerearen alorrean kirurgi bitartez hasteari, ekiteari ez deutsa egokiez premiñazko eritxi. Tokian tokiko hizkerea darabil egunero. Arean bere, bide horixe ez ete da aukerakoena, ar-tezena, onuratsuena, bizirik dirauanari bizirik iraunerazoteko?

Izan be, herriaren berbetea ezin daiteke belaunaldi baten

aldatu, brastadan bestelakotu, asmorik goitarrena izan arren. Ausaz, lardaskatu, egosgogor bihurtu, euskal gaiztoa zertu. Hizkuntz-aldaketea eta euskalkien trukadea be, luzaroko arazoa da. Eta ez hain erreza.

Kezka eta buruhauste astunetan gabiltz.

Euskalkiak jagon guran, batzuk. Baturako eredu barri hori ahalegiñez indartu ta zabaldu guran, beste batzuk.

Bizkaierearen aldeko honen mesederako eta euskera beraren osasunerako jo ta ke dihardugula uste izanik geure lorrak ditugunean, hona hemen irakurri barri dogun agiri baten be, beste batzuen kezka mingotsa. Euskera-arloko Erakunde nagusitzat daukagun horrek, bere egoneziña eta kezka nabarmena azaldu dau. Beste ikuspuntu bateko kezka samiña da, baiña gunean, mamiñean, guztiona da. Euskereak izan daikezan kalteetako bildura.

Entzun hitzez-hitz aldartzen dodan pasarte hau:

«Komunikabideek gaur-egun duten eragina eta garrantzia hizkuntzen normalizapen arloan kontutan izanik, Euskal irratia eta telebistaren euskara maila salatu da. Zuzentzaile karguaren lana ganorazko ez bada, ondore oso txarrak ekar liezazkiokete tresna kementsu hauek euskarari. Kezka hau nabarmena izan da batzartuen artean. Galbahe estuago igaro behar lukete hizlari eta aurkezleek horrelako lanpostua lortzeko».

Horra, bai!

Baturantzako eredu barri hori berehala erabilteko griñea sortu da eta aizatu da. Horratiño, zer bat da erabiltea; bestea, euskera ez jakitea.

Eta orduen... zapata barriek miñ orpuen.

Jakingarria litzateke honelako txostenen bat. Zera, iragan zortzi-amar urtean, Bizkaiera eremuan; zehatzago esateko, ahozko euskera mintzatuari adi, eremu horretan baturantzako eredu barri hori nun eta zein heinetan sartzen hasi dan; gaztelania nun indartsuagotu dan; umetan euskaldun izan diran mutiko neska-

toak, erdaldunbarri zenbat bihurtu ete diran; jatorriko euskalkia nun makaldu dan, zelan lorrindu dan, zenbatean zapaldu dogun. Galdu-hurren nun dan. Gogoan izan orain hamar urte, Bizkaiera mintzatua %37,7 izan dala; Gipuzkera mintzatua, %37,6.

Egunkarietan ez da bizkaierazko lanik argitaratzen. Euskal telebistan -hain mesedegarri izan daitekean telebistan- ezin gure euskalkiaren doiñurik entzun. Horraitio, ikusi dogunez, pekatuak dakar penitentzia. Urruneko intxaurrak. Horraitio, Augustiñek, oraintsu, Deba ibai inguruetatik sartalderantzekook «Agotak» ete garean itandu dau. Hizkerea, herriarena ez al da?

Euskaldun zaharrek, euren betiko berbeteari ekingo deustoc. Umeek eta gaztetxuek, barriz? Euskera urbanoa deritxoeren horrezaz jabetu baiño lehen, tokian tokiko berbetea galtzen badabe, bildur gara ortozik geratu, eta erdal-oiñetakoak ez ete dituen jantziko, behin eta betiko. Hortxe dago arriskua. Ikastolan edo eskolan, zelan halan, euskeraz, umeok. Kaleratu eta... gaztelaniaz parra parra.

Guk, eta zuotariko askok, eskolan ez genduan euskerarik izan. Bestera; gaztelaniaz ikasi genduan. Erdaldunbarri bihurtu ginduezan. Baiña eskolatik kanporatu-ala, euskaldun txori kantariak giñan kalean, jolasean, etxean, eleizan.

Euskereak entzute handiago dauka munduan gaur dan egunean. Horraitio, Estatuto ta guzti, arerioen saila handiagoa da adiskideena baiño. Lurraldeotan ditu arerioak; eta Sena eta Manzanares aldean diran uriburuetan, eta mila uriburutxutan. Azkenaren buruan, frantses kulturea ta hizkuntzea, eta gaztel-kulturea eta hizkuntzea gureen aurkariak direalako.

Augustin maisukuntzarako gertatu zan. Gaztetxutan ez eban osasun lar. Harrezkero, zorionez, Santa Kruz apaizaren antzeko gerta jakula esan giñci. Urtetsuago ta sendoago, morroskoago. Horraitio, beti bake zale, ez eskopeta zale.

Gure clertian izlauez hasi zan. Harako «Euzkadi» egunkarian, eta «Ekin» «Euzko», «Argia» asterokoetan. Idazle txairoa

etorren. Polemista garra be, agertu eroian. Izenordeak, eurrez «Arteta», «Gurutz», «Likona», «Itxasertz», «Amesti», Z-tar A. Erdal lanetan, «Kutuntxu de Artibai». Gure aldi haretan, euskal-idazleok izenordepean lan eta lan.

Arcan, Augustiñi gaztetatik, albistari jatorraren argi-izpiak dirdiz egiten eutsan bere bekoki zabal garbian.

Idazkuntzan, teatru-lanak egitea izan dau beti griñarik errotuena. Sarritan, testulari erako jarduera darakus, alkarriketetan setati eta bero bero sartzen danean. Gatza ta ozpiña, Prai Bartolok, aiña. Euskal-antzerkian, Labaien, Larzabal eta Zubikarai, hiru bateko.

Azken gerratean ia zortzi hilabetea, Augustin eta biok toki ta lan berean bizi izan giñean. 1936 zemendi-abenduan, «Guda-otsak» idazten. 1937 urtearen hasieran, «Eguna» oraiñarte izan dan euskal-egunkari bakarra atonduten. Beste lagunak, «Abeletxe», Alex Mendizabal, Ibon eta ahaztu-eziña dogun Jose Mari Arizmendi-Arrieta, baserritar unibersala. Bost hilabete ta erdian, astero sei zenbaki kalera. Matxinoak Bilbon sartu ziran, «Eguna»-k kuku egin behar.

Augustiñek gudaldi aurretik, 4 antzerki idatzi zituan: «Aberrijagaz bizi», Illobaren indarra», «Itxaslapurak» eta «Itxasartzeko mutilla».

Harrezkero, olerti-zelaira agertu izan jakun. Bihotzondo emonkorra dauka, eta sentimen igurtzia daben olerki sailak egin ditu, eta sari mordoak merezi, harako Sangotsan, Zornotzan, Laukinizen.

Gerrate osteko teatru-lanak 13, eta eurotarik, 10 sarituak. Antzerki-estanpei musikea ezarri eta ederlan atsegin bihurtu ditu. Antzeztalde buru be sarri izan da eta ondarrutar jente azkarak herririk herri erakutsi zituan antzerki entzungarriok. Baita euskal-zigorraldi anker haretako sasoi ilunetan be. «Seaska inguruan», «Jaunaren bidetan», «Mariñelak», «Kresaletan». Toribio Alzaga Saria hiru bidar irabazi dau, 1963, 67 eta 69 g. urteetan:

«Iru alaba», «Gizon on eta andre erre», «Mendu zaharrak». Eta «Mendia eta itxasoa» Markiñan, 1983; «Eskola maixua» Santurtzian, 1984 g.

Gipuzko saria beste hirurokaz: «Bizi garratza», «Lurrunpean», «Errekondoan». «Kirikiño»-ren eta Urruzunoren giroan be, zerak atondu ditu. Patxi Escuderoren «Gernika» operearentzat, ekintza bi.

Hizlaria be izan da, tribunetan eta irratietan. Arratia irratian unada luzean, Arraten eguenetan, Bilbo irratian egunero inoiz. Hiztegi lanetan be ibilia da, gramatika zale ez dan arren.

Gerra-osteko prentsan, nun ez dau euskeraz idatzi? «Agur» (Zubegi), «Boga-Boga», «Zeruko Argia», «Egan», «Euskera», «Zer», «Olerti», «Karmel», «Goiz-Argi», «Redención». Donostiako «Diario Vasco»n be, urte bian. Hango irabazia ta ordaiña? Augustiñek mundu hau laga dagianean, Berrondo abade jaunak «Aitagurea» errezauko ei deutsa. Baiña... Berrondo lehenago badao? Berrondo, purgatoriora; bai ba, zorra! Eta Augustin gurea... zeruko ate-aurrean zain eta zain, «Aitagure» baten premiñaz.

Zubikaraik hemengo «Deia» egunerokoan hainbat urtetan eurrezean ikusi ditu bere lanak. Bizkaian eta Gipuzkoan, orain be, gizon honen idatziak irakurteko irrikitzen dago, amurratuta. Eske ta eske. Zer?

Jo daigun laugarren saillera: ipuiñak, saiakerak, kontakizunak, nobelak. Emeretzi liburu argitaratu ditu. Euskeratuak beste bi ditu. Prest daukazanak, hiru. Honeen artean «Zaldupeko alaba».

Zubikaraik doe berezia dauka lehenetako giroa, aroa, ohi-turak, bizimodua gure begien aurrean lanbrorik eta ilunik barik jarteko. Aro misteriotsu samar hareetan sortzen ditu notiñak, pertsonkideak. Hareen kanpoko taiua ta irudia agertuko deusku; gero, polito polito, hareen barrua edegi eta ezkutuan eukezan gurariak, griñak, asmo ta joerak, gorrotoak eta maitetasunak, eguzkitara aterako ditu. Entzuna, irakurria eta berberak asmauri-

koa motrolloan jo ta zapaldu, eta jakinguraz beteko gaitu.

Aldia, lan batzuetan oraingoa, beste batzuetan, lehenetakoa. Tokia, gehienbat itsasondoa, eta batipat, Ondarroa. Gure aburuz, honen nobelarik mardocnak, «Bale denporak», «Anton Guzurrerxe» (Txomin Agirre Saria, 1979) eta «Itxastarrak». «Makillen egunak» eta «Esan eta esango» be, ez ditugu ahazturik. Azken honegaz Bilbon, 1978 g. Azkue saria lortu eban. Etxeita Sariak be, 3 jaso ditu Mundakan.

Hainbat lanetan nobela historikoaren ikutu eta erakarpena dauka, unea zehaztu bage, eta notin gailenak gehienbat herri jentea izanik. Giroaren garratza, samina eta gazigozoa be eskeintzen deuskuz. Irakurlea sarritan adurretan jarteko pasarteak eta esaldi zorrotz eta gustagarriak. Esturazko bizimodu latz eta arriskutsuen erakuspen ezberdiak. Umezurtzen eta andra alar-gunen pasadixo nekatsuak agertzen maixua da. Adin guztietariko lagunak darabiltz hara ta horra bere sortzapenetan. Jente zaharra nahiz gaztea nahiz umea, nahikoan ezagutzen ditualako. Jakituri orniduz eraturiko zerak ditu, hasieraa, korapiloa eta azkena dabenak.

Orrialdeetan zehar hainbat eta hainbat esate artez, pasarte mamintsu, azalpen bitxi, bai asmoari ta jazopenaren hariari doakonez, bai euskereari berari adi gagozala. Bizkaierazko material bila dabilzanek, hortxe daukez kantera aberatsak.

Errealismuaren barrutian jokatu daroa gogara, trabarik bage. Egoera lazgarriak, jazoera bakanak, herri bizitza interesgarria, notin misteriotsuak. Hiztegia naro darabil. Berbak eta esaldiak argiro darakuse jazoera bakotxeko guna ta nabardurea; arean, berba apalak, berba gordiak, ausartak, gure alorrean aspaldietarik ditugunak, jatorrak. Eta han hor hemen, zirikadak, eztena, zeharretako hizkerea, irudiak eta erkatzeak, eta eskukada gatz lodia eta piper minia. Egiaren antza blai, jatortasunaren erakutsia, izatearen jarraipena, ederraren eskuz apaindua.

Aldi hareetan gure portuetan zircan goseteak; *miseria* erdalitza hain sarri esana, hain sarri entzuna, oinazezko letaña baili-

tzan. Arrantzaleen etxe hutsetako negu hotzak. Premiña gorrien artean, ostera, itxaropena, arima zal eta jorantsua, odei baltzen arteko argi xirrintea, iñoiz galdu ez daben bizigurako sena, odolaren taupadea, zanen dardarea. Eta bitartean, kresal-usaiña, itxasoaren marroa, traskotsa.

Gozagarri dakigun, eskuarki ostu dogun ataltxu haxe, Augustinen «Itxastarrak» liburutik harturikoa, 39 g. orrialdean. Entzun.

«Arrantzaleen edozein herri txikitari ainbat gizon eta emakume bakan eta berezi dagoz. Giroak eragiten dauana izan lei. Ez da berezkoa euren izaerea, baiña zeaztuten gaitz da. Indarkeria dabil bitartean. Giroko indarkeria. Behar bada, itxasoaren indarkeria. Origaitik, arrantzaleak beste iñor baiño bakezaleago dira. Errukiak ariñago jotzen ditunak. Eta zoritxarrak jotzen dituanen be, erreago gainduten dabenak, garratz eta larrienak izan arren. Ba daukez tartertan, itxasoan sortuten diran lako bat-bateko galerrenak. Baiña ori, ekaitzaldi bateko aizoa da. Giroa, izatea, besterik da. Gertuta dagozalako, edo familietan orixe ikasi, entzun, igarri eta bizi izan dabelako. Oituren menpetasuna».

Gizona bere lanen seme baldin bada, bere lanak dira Augustin. Gai jakingari ugari, histori ildoari jarrai, ekanduei loturik, gutarren onbideei eta makurrei adi, hizkera jator mamintsuak idatziak.

Lan sakonak, lan ariñak, iñoiz garratz, iñoiz atseginak. Etenik bako jardunean berrogetamar urtean buruturiko lanak, tarte bitarteetan egiñak, bere ogibide nagusia urte luzeetan, Mutriko arrain-lantegia izan daukalako. Gauei ordurik franku ostuta, amesik be egin ezinik, Ames Nagusi, lilura azken bakoan. Kandelarioetan atxari ura lez, euskerea dario.

Ezkondu zan (orain, tamalaren handiz, alargun), sei semealaba daukaz. Euskaldunoi ehun liburu eskeiñi. Gure mendietan ziur asko, arbola landarak sartu ditu.

Eta zahartzaroa gorabehera, Bizkaiko Batzar Nagusietako eskudun jauna dogu, eta Ondarroako Kultura Etxeko artezkari; Euskaltzaindian urgazle, Euskerazaintzan, kide.

Igaz esan neutsan: -«txo»... halakoren baten goratuko zaitue; baiña... hil zaitezanean.

-Hor daa, ba! - erantzun eustan.

Horraitño, ez. Gaurko gorazarre hau, giro kutunean eta leku goitian, ordu onean ospatzen dogu.

Euskal-idazle asperrezin bati, bizi dala, omena.

Ez al da azkena izango! Urte on askotan, Augustin.

Eusebio Erkiaga

Bilbon, Bizkai Aldundiaren jauregian, 1986 apirilaren 18 gn.

Augustin Zubikarai'ren esker agertzea.

Jaun andreak:

Eskerrikasko.

Lotsatu egiten naz eskerrak emoten be.

Ni, jaunak, ez naz omenaldi onen duin.

Ni euskaldun jaio nitzan; euskera artu amaren tititik; gero euskera ori erabili dot, nai bada landu be bai pixkat. Baiña bes-terik ez. Nik ez dot alegiñik egin euskera ikasten, ori da egia.

Beraz ni beartuta nenguan amagandik artutako izkuntza erabili eta maitatzera. Kontzientzian beartuta, batez be guri bizi-tea gertatu jakuzan egunak kontuan eukita. Orixe da egin dodana.

Nik uste dot, eta ala sinistu nai dot, nai aitzakitzat artu nazucla, bitartekotzat, euskeraren gogorapen bat eukiteko, batez be azken denporetan euskera bitarteko sala ipinten diran oztopoak gainduteko.